

BARNE-ERREGELAK

AURKIBIDEA

I. Izaera eta Xedeak	811
1. Art. Nortasun juridikoa eta xedeak	811
2. Art. Oinarri antolatzaileak	812
II. Osaera eta ibilbidea	812
2.1. <i>Euskaltzainak</i>	812
3. Art. Zenbat euskaltzain	812
4. Art. Euskaltzain osoak	812
5. Art. Euskaltzain urgazleak	812
6. Art. Euskaltzain osoen eskubideak	813
7. Art. Euskaltzain urgazleen eskubideak	813
8. Art. Euskaltzain ohorezkoen eskubideak	813
9. Art. Euskaltzain osoen eginkizunak	814
10. Art. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoen eginkizunak	814
2.2. <i>Zuzendaritza</i>	814
2.2.1. <i>Horniketa</i>	814
11. Art. Zuzendaritzaren osaera	814
12. Art. Kargu uztea	815
2.2.2. <i>Egitekoak</i>	815
13. Art. Berarenak	815
14. Art. Zuzendaritza zabalduarekikoak	816
2.2.3. <i>Bileretako deia eta eguneko aztergaiak</i>	816
15. Art. Bilera deia	816
16. Art. Aztergaien zerrenda	820
17. Art. Aztergaien zerrendarekiko argibideak	817
18. Art. Azken ordukoak	817
2.2.4. <i>Bileren araubidea</i>	817
19. Art. Quorum-a	817
20. Art. Idazkariordea	817

21. Art. Deitutakoak	817
22. Art. Bilera-buruzagitza	817
23. Art. Erabakietarako gehiengoa	817
2.2.5. Agiriak eta erabakiak betetzea	818
24. Art. Bilera agiria	818
25. Art. Euskaltzainak eta Zuzendaritza-bileren Agiriak	818
26. Art. Erabakiak betetzea	818
2.2.6. Euskaltzainburua	818
27. Art. Euskaltzainburuaren ahalak eta egitekoak	818
2.2.7. Euskaltzainburuordea	819
28. Art. Euskaltzainburuordearen ahalak eta egitekoak	819
2.2.8. Idazkaria	819
29. Art. Idazkariaren ahalak eta egitekoak	819
2.2.9. Diruzaina	819
30. Art. Diruzainaren ahalak eta egitekoak	819
2.2.10. Egoitza	820
31. Art. Egoitza	820
2.2.11. Ordezkaritzen sortze eta egitekoak	820
32. Art. Sortzea	820
33. Art. Ordezkaritzen egitekoak	820
2.2.12. Ordezkariak	821
34. Art. Ordezkarien izendapenak	821
35. Art. Ordezkarien egitekoak	821
2.3. <i>Sailak eta batzordeak</i>	821
36. Art. Sailak	821
37. Art. Iker Saileko batzordeak	821
38. Art. Jagon Saileko batzordeak	821
39. Art. Egiturazko batzordeak	822
40. Art. Batzorde suntsikorrak	822
41. Art. Batzorde iraunkorren osaera	822
42. Art. Euskaltzainburua eta batzordeak	822
43. Art. Batzordekideen izendapena eta iraupena	822
44. Art. Batzordekideen tarteko izendapena	822
45. Art. Azpibatzerdeak	822
46. Art. Batzordeburu eta idazkariak	823
47. Art. Batzordeen langintza	823
48. Art. Osoen erabateko ordezkaritza batzordeei ematea	823

49. Art. Batzordeen lehen mailako onarpena	823
50. Art. Batzordeen bigarren eta hirugarren mailako onarpena	823
51. Art. Ikerburugoa	823
52. Art. Batzordeen bilera-egutegia	824
2.4. <i>Egitasmoak</i>	824
53. Art. Egitasmo bereziak	824
54. Art. Egitasmoen zuzendaritza akademikoa	824
55. Art. Egitasmoen arduradun teknikoa	824
56. Art. Egitasmoen arduradun administratiboa	824
57. Art. Egitasmoen aurrekontuak	825
III. Hautatze, izendatze eta bozketak	825
58. Art. Euskaltzain berrien izendapena	825
59. Art. Karguen horniketa eta iraupena	826
60. Art. Akademi bilkurak	826
IV. Dirutza eta Ondarea	827
4.1. <i>Ondarea</i>	827
61. Art. Ondarearekiko xehetasunak	827
4.2. <i>Euskaltzaindiaren lana. Jabetza eta erabilera</i>	828
62. Art. Ondarearen osaketa	828
63. Art. Lanen jabetza intelektuala	828
64. Art. Batzordeetako lanen ordainketa	828
65. Art. Agindutako lanen ordainketa	828
66. Art. Argitalpenen eskubideak	828
67. Art. Argitalpenetan egileen izenak	828
68. Art. Lanen argitalpen bereziak	828
4.3. <i>Diruzaina eta Ekonomi eragilea</i>	829
69. Art. Ondare alorreko arduraduna	829
70. Art. Diru-sartze eta diru-irteteen argibideak	829
71. Art. Diru-sartzeen erabilera	829
72. Art. Diru-sartze eta diru-irteteen kontu-ematea	830
73. Art. Ekonomi eragilearen izendapena	830
74. Art. Ekonomi eragilearen eginkizunak	830
V. Azkue Biblioteka	831
75. Art. Zerbitzuaren ondarea	831
76. Art. Ondarearen bilketa	831
77. Art. Zerbitzuaren helburua	831
78. Art. Ondarearen aberasbidea	831

79. Art. Erosketak	831
80. Art. Aurrekontua	831
81. Art. Katalogazioa	831
82. Art. Ondarearen ardura	832
83. Art. Liburuen mailegua	832
84. Art. Biblioteka batzordea	832
85. Art. Biblioteka langileen izendapena	832
86. Art. Biblioteka langileen zuzendaritza	832
87. Art. Bibliotekaren funtzionamendua	833
VI. Argitalpenak	833
88. Art. Argitalpenei buruzko xehetasunak	833
89. Art. Argitalpenen ardura	833
90. Art. Argitalpen batzordea	833
91. Art. Argitalpen berezien prestutasuna eta edukia	834
92. Art. Argitalpenen jabegoa	834
93. Art. Argitalpen eragilea	834
94. Art. Argitalpenen biltegia	834
95. Art. Argitalpenen aurkezpenak	834
VII. Onarpen mailak eta prozedurak	835
96. Art. Onartze mailak	835
97. Art. Arau eta gomendio mailakoak	835
98. Art. Batzordeen araugintza edo gomendiogintzarako esku-emate osoaz	836
99. Art. Batzorde mailakoak	836
100. Art. Irizpen edo diktamenak	836
Xedapen gehigarria	837
101. Art. Barne Ibilbideak	837
Xedapen indargabetzailea	837
102. Art. Indargabetzeak	837

BARNE-ERREGELAK

I. IZAERA ETA XEDEAK

1. Art.

Euskaltzaindia Instituzioa da, nortasun eta gaitasun juridiko osoa duena; eta, helburuak bere Araudiak biltzen dituenak izanik, alor hauetan arituko da bereziki:

1.1. Euskararen gramatika legeak ikertzen eta azaltzen.

1.2. Hizkuntza eta Literatura hizkeraren langintzarako gomendioak eta arauak ematen.

1.3. Hizkuntzaren erabilera ezberdinetako hiztegia bildu eta egokiro sistematizatzen, dagozkion hiztegi orokorrak eta bereziak burutu eta argitaratzen, eta, era berean, Hizkuntza Atlasa eta Onomastika izendegiak.

1.4. Hiztegia, gramatika, grafia, literatura, hizkera eta ahoskera alorretan hizkera batura heltzeko lan egiten.

1.5. Euskararen erabilera aitzinatzen eta sustatzen, horretarako dagozkion gizarte eragileekin batera behar diren mota guztietako harremanak ugalduz.

1.6. Hizkuntzaren eskubideak zaintzen, horretarako euskal hiztunen hizkuntza eskubideak jagonez, bai euskara erabiltzeko tenorean, bai eta erabilera hori zuzena izan dadin.

1.7. Gizarte maila eta eremu orotako adierazpide eta lanabesa izan dadin, hizkuntzaren gaitze prozesuan lan egiten.

1.8. Literatur eta ikas lehiaketak eragiten.

1.9. Filologia eta linguistikako ikasketak sustatzen, horretarako bilgune izanik, legezkoikeen biltzar, jardunaldi, bilera eta harremanak bideratuz.

1.10. Euskarari dagozkionetan instituzio aholku emaile ofiziala denez, agiriak eta irizpide eta diktamenak ematen.

2. Art.

Xede hauek betetzeko, Euskaltzaindia instituzio gisa eratzen da, jarraiko oinarri antolatzaileen barnean:

- 2.1. Botere publikoaren sustapena, onartze berezia eta babesia euskararen alde egiten duen lanerako.
- 2.2. Barne antolakuntzaren berezko araubidea.
- 2.3. Arlo publiko nahiz pribaturako gaitasun juridiko osoa.
- 2.4. Barneko finantza-autonomia eta berezko ondarea.

II. OSAERA ETA IBILBIDEA

2.1. Euskaltzainak

3. Art.

Araudiaren hirugarren artikulua dioenez, hogeita lau euskaltzain osoz, euskaltzain urgazleez eta euskaltzain ohorezkoek osatua da Euskaltzaindia.

4. Art.

Euskaltzain osoak:

4.1. Euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz, Euskal Herri guztikoak izan behar dute, euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten. Horretarako hautagaiak euskaran edo euskal literaturan adituak izango dira.

4.2. Euskaltzainak hautatzeko garaian euskalkien ordezkaritza kontuan hartuko da, banaketa honen arabera: Araba, bat; Bizkaiera, hiru; Gipuzkera, hiru; Nafarrera, hiru; Behenafarrera-Lapurtera, hiru; Zuberera, bat.

4.3. Beste hamar euskaltzainak euskalki irizpide hau kontuan hartu gabe hautatuak izan daitezke. Nolanahi ere, euskalki bateko ordezkariak ezin dezakete kopuru orokorraren herena gaindi.

5. Art.

Euskaltzain urgazleak:

5.1. Euskaltzain urgazlegaiak orobat euskalaritzan ezagunak izango dira nahiz idazle hautak edo euskararen jagoletzan nabarmenduak.

5.2. Urgazleatarik batzuk atzerritarrak izan daitezke, nazioarte mailan akademia gaietan eskaini dituzten lan aipagarriak kontuan izanik aukeratuak.

6. Art.

Euskaltzain osoek eskubide hauek dituzte:

6.1. Batzarretan hitza eta boza izatea.

6.2. Edozein kargutarako hautagai izatea.

6.3. Instituzioaren domina erabiltzeko ahalmena. Dominak, alde batetik, instituzioaren hasierako ikurra eramango du; bestetik, aulkiari dagokion zenbakia. Domina zenbatu hauen jabea instituzioa da eta erabili ondoren berriz itzuli beharko dira.

6.4. Urteko Aurrekontuan onartzen denaren arabera, bileretara joateagatik dagokion diru-laguntza jasotzea.

6.5. Instituzioaren ezaugarri txartela (karneta) erabili ahal izatea.

6.6. Euskaltzain, euskaltzainkide edo euskaltzain osoa dela adierazteko ahalmena.

7. Art.

Euskaltzain urgazleek honako eskubideok dituzte:

7.1. Akademia gaiak erabiltzerakoan ohiko bilkura barrengoetara joatea, hitza bai, baina bozik ez dutelarik.

7.2. Ohiko bilkura agerikoetan izatea.

7.3. Akademia gaiez txostenak eta lan zientifikoak aurkeztea.

7.4. Izendatuz gero, dagokien batzorde bilkuretara joatea, eta, batzordekide badira, ahotsa eta boza izatea.

7.5. Euskaltzain urgazle dela adierazteko ahalmena.

8. Art.

Euskaltzain ohorezkoen eskubideak hauexek dira:

8.1. Akademia gaiak erabiltzerakoan ohiko bilkura barrengoetara joatea, hitza bai baina bozik ez dutelarik.

8.2. Ohiko bilkura agerikoetan izatea.

8.3. Akademia gaiez txostenak eta lan zientifikoak aurkeztea.

8.4. Euskaltzain ohorezko dela adierazteko ahalmena.

9. Art.

Honako hauek dira euskaltzain osoen eginkizunak:

9.1. Sarrera hitzaldia egitea, Arautegiak ezarritako epea eta prozedura betez.

9.2. Batzarretara joatea.

9.3. Gaiak erabakitzeke boza ematea.

9.4. Bere lanekin instituzioaren helburuak betetzen laguntzea.

9.5. Agintzen zaizkien lanak betetzea, epeak eta gainerako prozedurak zainduz.

9.6. Hautaketen bidez ematen zaizkien karguen eginkizunak betetzea.

9.7. Batzordeburu nahiz batzorde idazkari izatea.

9.8. Argitalpenen ale bat Bibliotekarako bidaltzea.

10. Art.

Euskaltzain urgazle eta ohorezkoen eginkizunak hauek dira:

10.1. Agindutako lanak betetzea.

10.2. Argitalpenen lanen ale bat Bibliotekarako bidaltzea.

10.3. Instituzioaren helburuak betetzen laguntzea.

2.2. Zuzendaritza

2.2.1. *Horniketa*

11. Art.

Arautegiaren arabera:

11.1. Euskaltzaindiak Zuzendaritza bat izango du, honako kide hauek osatua: euskaltzainburuak, buruordeak, idazkariak, diruzainak, **Iker** sailburuak eta **Jagon** sailburuak. Denek euskaltzain oso beharko dute izan. **Iker** sailburua nahiz **Jagon** sailburua euskaltzainburuorde ere izan daitezke, aldi berean.

11.2. Zuzendaritzako karguak lau urtetarako izanen dira. Izendatuak berizenda daitezke.

11.3. Hautatzea ezkutuko bozketaz egingen da, horretarako soilki bilduko den ohiz kanpoko bilkura batean.

11.4. Kargu berritzea eginen den bilkurarako deia, gutxienez, hamabost egun aurretik bidali behar da. Egitarauan hautatzea aipatuko da.

11.5. Hautatzea errutsua izan dadin, gaiak euskaltzain osoen bozen nagusitasun osoa erdietsi beharko du. Gehiengo hori ez bada, beste bozketa bat eginen da, eta orduan aski izango da gehiengo soilia.

11.6. Zuzendaritzako kideen hautaketa abenduan egingo da. Karguaz jabetzea, ordea, urtarrileko batzarrean.

12. Art.

Zuzendaritzakideen kargu uztea, honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotza, ezintasuna eta dimisioa. Ordezkoen hautaketa, gelditzen den denbora epealdia artekoa izango da. Hutsarte gertatu ostean, ondorengo bilkuran iragarriko da eta hurrengo hileko osoko bilkuran hautatuko da.

2.2.2. Egitekoak

13. Art.

Zuzendaritzari dagokio lan batzordeetan parte hartuko duten pertsonen izenak proposatzea, eta Euskaltzaindiaren bilkura, erabaki eta lanei buruzko agiri berrikeriak idaztea. Honez gain,

Zuzendaritzarenak, berarenak:

13.1. Euskaltzaindiaren erabakiak betetzea.

13.2. Egoitza eta ordezkaritzetako horniketa eta artatzeari kasu egitea.

13.3. Euskaltzaindiari eta Herri Aginteei aurkeztu behar zaien hurrengo urteko aurrekontua onartzea.

13.4. Diruzaintzak urtero Euskaltzaindiari eta Herri Aginteei aurkeztu behar dien Kontu-Errendapena aztertu eta onartzea.

13.5. Diruzaintza gainditzen duten ekonomia gaiak bideratzea.

13.6. Urte bakoitzaren azken hiru hilabeteetan hurrengo urteko batzarren egutegia prestatzea.

13.7. Euskaltzainburuaren proposamenez, batzordekide izan daitezke-enak, dagokion osoko batzarrean aurkeztea.

13.8. Argitalpen batzordean partaide izatea, honen erabakiak betearaztea eta tarteko arazoak bideratzea.

13.9. Euskaltzaindiaren batzarrak finkatzea.

13.10. Administrazio orokorraren antolatzaile eta begirale izatea, beronek onetsitako Barne Ibilbidearen arabera.

13.11. Bibliotekaren eta Artxiboaren funtzionamenduko ildo nagusiak zaintzea.

13.12. Langileekiko arazoan arduratzailea izatea, Zuzendaritzak berak onetsitako araubidearen arabera.

13.13. Barnerako epaimahaiak izendatzea eta kanpokorakoak proposatzea.

13.14. Euskararekiko instituzio, elkarte eta gizabanakoekin harremanak izatea.

13.15. Ustekabeko eta ezin luzatuzko akademiko ez diren arazoak apailatzea.

Zuzendaritza zabalduarekikoak

14. Art.

Inoiz edo behin, Zuzendaritza bil daiteke ordezkari, batzordeburu edota egitasmoen arduradunekin, gaiak hala eskatzen badu.

2.2.3. *Bileretarako deia eta eguneko aztergaiak*

15. Art.

15.1. Zuzendaritzak hilean bi aldiz egingo du batzar arrunta.

15.2. Era berean, gaiaren arabera premiak edota garrantziak hala eskatzen duenean, batzar bereziak egin ahal izango ditu.

15.3. Halaber, zuzendaritzakide guztiak bildurik, aurretiaz deirik egin gabe, aho batez erabaki dezakete une horretantxe Zuzendaritzaren bilera egitea.

15.4. Bilerak Euskaltzaindiaren egoitzan, ordezkartzan, eta, hala beharrez, beste edonon egin ahal izango dira, tokia eta ordua aurretiaz finkatuta.

16. Art.

Eguneko aztergaien zerrendan, aurreko batzarraren agiria aztertuz eta onetsiz hasiko da, eta sailkatze baten arabera jarraikiko.

17. Art.

Zuzendaritzak aztertzeko, aurretiaz bidali beharko zaizkio idazkariordeari eguneko aztergaien zerrendan sartuko diren gaiiei buruzko txosten eta argibideak.

18. Art.

Azken orduko eta premia larriko gaiak azter daitezke, beharrezko diren azalpen eta aurrekariak esku artean direlarik.

2.2.4. *Bileren araubidea*

19. Art.

Euskaltzainburua edo legez ordezkatzan duena eta gutxienez zuzendaritzakide erdiak ez badaude, ezin izango da batzarra hasi, ez eta balioz egin ere.

20. Art.

Zuzendaritzaren bileretan idazkariordeak parte hartuko du.

21. Art.

Eguneko aztergaien arabera, euskaltzainburuak edozein eragile, arduradun edo aditu joan dadin baimen dezake.

22. Art.

Euskaltzainburuak zuzenduko ditu eztabaidak eta gaien azterketa. Eta, egokietsi dezanean, bilera eten edo amaitutzat jo dezake.

23. Art.

23.1. Erabakiak bileran dauden zuzendaritzakide edota sailburuen gehiengo soilaz onetsiko dira.

23.2. Berdinketak euskaltzainburuak edo legez ordezkatzan duenak ebatziko ditu.

23.3. Hautesprenak izendunezkoak izango dira, eta, bilerakideetarik gehiengoak eskatuz gero, isilpekoak.

2.2.5. *Agiriak eta erabakiak betetzea*

24. Art.

Agiria idazkariak edo, haren aginduz, idazkariordeak egingo du.

25. Art.

Euskaltzainek eskubidea dute Zuzendaritzaren agiria ikusteko, baina ezin izango diote zabalkunderik eman.

26. Art.

26.1. Zuzendaritzaren erabakiak berehalaxe betearaztekoak izango dira, euskaltzainen bileraren berrespena lortu beharra ez badute.

26.2. Erabakiak hurrenez hurrenko sail ezberdinek betearaziko dituzte, bakoitzaren eskumenen arabera.

2.2.6. *Euskaltzainburua*

27. Art.

Euskaltzainburuaren ahal eta eginbideak hauexek dira:

27.1. Instituzioaren bilkuretan buru izatea.

27.2. Euskaltzaindiaren Arautegi, Erregela eta erabakiak bete daitezen begiratzea.

27.3. Instituzioaren ordezkaritza, lagun eta elkargo mota guztien aurrean eramatea.

27.4. Instituzioaren Erregela eta erabakiek eman diezazkioketen beste zereginak betetzea.

27.5. Iritziak berdin agertzen badira, azken hitza izatea.

27.6. Akademi bilkuretan mahaiburu izatea.

27.7. Batzarretan batzar-gaiak irakurriko ditu.

27.8. Azken batzarreko agiriari oharrik egin behar ote zaion galdetzea.

27.9. Agiri onetsia izenpetzea.

27.10. Batzordeak osatuko dituzten batzordekideen izenak Zuzendaritzari proposatzea.

27.11. Ordezkaritzetako kontseiluak osatuko dituztenen izenak proposatzea.

27.12. Euskaltzainburua edozein batzorde nahiz ordezkartzaren bilkuretarra joan daiteke, nahi duen guztietan, eta hala behar dela uste duen bakoitzean.

2.2.7. *Euskaltzainburuordea*

28. Art.

Euskaltzainburuordeari dagokio:

28.1. Euskaltzainburua falta denean, haren lanak egitea.

28.2. Bestelako kargu edo eginkizunen ardura egotz dakiokete.

2.2.8. *Idazkaria*

29. Art.

Idazkariaren zereginak hauexek dira:

29.1. Osokoen batzar-agiria egitea eta euskaltzainburuaren on iritziaz inzenpetzea, onetsi ondoren.

29.2. Hartutako eskutitzei erantzutea eta horien berri batzarretan ematea.

29.3. Urteroko Oroitidazkia prestatzea eta Euskaltzaindira, hartako batzarrean, aurkeztea.

29.4. Ordezkarizetako lanak koordinatzea.

29.5. Batzarren eta Zuzendaritzaren erregela eta erabakietatik heldu ohi zaizkion gainerako zereginak betetzea.

29.6. Batzarretan eskuarteko arazorik garrantzitsuenak azaltzea: gutunak, instituzioari egiten zaizkion eskeak, bulego-arazoak, asmoak, proposamenak eta abar.

29.7. Euskaltzainburuaren mandatari bezala, edozein batzorderen bilkuretarra joan daiteke.

2.2.9. *Diruzaina*

30. Art.

Organigramaren arabera, diruzaina da instituzioaren ondare alorreko arduradun nagusia eta, Araudiaren 12. artikulua dioenez, sarrera eta ordainketa guztien kontuen berri eta argibideak jasoko ditu eta, besteak beste, hauek dagozkie:

30.1. Edozein arrazoiengatik elkargoak hartu behar dituen diruak jasotzea.

30.2. Ordainketak egitea.

30.3. Euskaltzaindiari hiru hilabetez behin kontuak errendatzea; euskaltzainburu nahiz Zuzendaritzari, eskatzen zaion bakoitzean, egingo dionaz gainera.

30.4. Era berean, Estatuko Gobernu, Autonomia Erkidego eta Foru Diputazioei kontuak errendatzea, jasotako diru-laguntzak zertan erabili diren azalduz.

30.5. Behar den garaian, hurrengo urteko Aurrekontua prestatu eta Zuzendaritzari, osoen bilkurari eta Herri Aginteei aurkeztea.

2.2.10. *Egoitza*

31. Art.

Euskaltzaindiak Bilbon du egoitza. Egungo etxea: Plaza Barria, 15ean dago.

Erakundearen egitasmoak egoitzan kokatuko dira, ahal delarik.

2.2.11. *Ordezkaritzen sortze eta egitekoak*

32. Art.

Euskaltzaindiak ordezkariak izan ditzake, Arautegiak 16. artikuluan dioenez.

33. Art.

Ordezkarien ardurapean ordezkarietzi dagokie:

33.1. Neurri handi batean –nahiz eta ez hauei bakarrik– bakoitzak bere eskualdean, Euskaltzaindiaren bi sail nagusietarik baten arta izatea: hots, **Jagon** Sailarena.

33.2. **Iker** Saileko batzordeei azpiegitura eta laguntza eskaintzea, betiere, Idazkaritzaren koordinaziopean.

33.3. Zuzendaritzak egotzen dizkien lanetan aritu eta egiten zaizkien eskeei erantzungo diete, hiritarrei hurbileko zerbitzua eskainiz.

33.4. Egoitzaren eta ordezkarietzen arteko elkarlana koordinatzeko, ahalmenen arabera, informazio-sarea landu eta erabiliko da, etengabeko trukaketa erraztuz.

33.5. Honez gain, Idazkaritzaren bidez, instituzioaren bestelako beharri-zan orokorre i ahal bezainbateko laguntza eskaintzea.

33.6. Ordezkaritza alorrean diru-kontuen kudeaketa eramatea eta, aldiro, Diruzaintzari kontu-errendapena bidaltzea.

2.2.12. Ordezkariak

34. Art.

Ordezkaritzaburua ordezkaria izango da, ahal delarik euskaltzain osoa, eta Erregela hauen 58. artikulua ren arabera izendatuko da.

35. Art.

Ordezkariari dagozkio:

35.1. Ordezkaritzei ezarritako instituzioaren eginkizunez arduratzea.

35.2. Bere eremuan, instituzioaren izenean, gutunak eta agiriak sinatzea, eta banku-kontuen ahalmena izatea.

35.3. Behar izanez gero, ordezkariari laguntza eta aholkua emateko, Ordezkaritza-Kontseilu eragilea izenda daiteke. Kontseilu hau Zuzendaritzak izendatuko du, ordezkariari entzun ondoren, eta osoen bilkurak berretsiko.

2.3. Sailak eta batzordeak

36. Art.

Arautegiaren 2. artikulua ren arabera, Euskaltzaindiak bi sailetan banatuak ditu bere eginkizun akademikoak: **Iker** Saila eta **Jagon** Saila, sail haue tariko bakoitza batzordeetan bana daitekeelarik.

37. Art.

Xede horretarako, **Iker** Saila batzorde iraunkor haue tan banatuko da: I. Hiztegi gintza batzordea, II. Gramatika batzordea, III. Dialektologia batzordea, IV. Onomastika batzordea eta V. Literatura batzordea.

38. Art.

Jagon Saila batzorde bakarrak edo, beharren arabera, batzorde gehiagok osatua izan daiteke.

39. Art.

Sailez kanpoko batzordeak egiturazkoak deitzen dira (une honetan: Argitalpenak, Azkue Biblioteka eta Lege-ekonomia batzordea) eta Zuzendaritzari atxikiak izanen dira.

40. Art.

Batzorde suntsikorrak sor daitezke eta, haiei agindutako lana burutu ondoren, desagertuko dira. Hauek ez dute zerbaki jakinik eramango.

41. Art.

Batzorde iraunkor bakoitza gutxienez bost lagunez osatua izango da. Honez gain, aholkulari gisa, gai baterako edo besterako, zenbait lagunek parte har dezakete.

42. Art.

Euskaltzainburua batzorde nahiz Ordezkaritza-Kontseiluen edozein bilkuratara joan daiteke. Orobat, honen mandatarri gisa, egin dezakete euskaltzainburuordeak eta idazkariak.

43. Art.

Batzordeak bi urtetarako izendatzen dira karguen horniketaren ondorengo bilkura batean. Euskaltzainburuak, Zuzendaritzako lagunekin kontatuz, batzordea osatuko dutenen izenak hautatuko ditu, eta ohiko barrengo bilkuran proposamena egingo, beste euskaltzain osoek ere beren proposamenak egiteko aukera dutelarik. Proposamenok beti izkribuz egin behar dira, arrazoiak emanaz, hau da, pertsona jakin bat zergatik hautatu den esanez.

44. Art.

Tarteko izendapenak egin daitezke hutsune bat gertatzen denean edo izkribuz beharizana arrazoitzen denean. Horretarako, batzordeburuak, batzordeari entzunda, hileroko osoko bilkuran aurkeztuko du proposamena, honek berrets dezan eta batzordeen organigraman ezar dadin.

45. Art.

Batzorde bakoitzak, bere lanen eskakizunen arabera, azpibatzerde edo txostengintza-taldeetan jardun dezake. Azpibatzerdea, batzordearen langintza oparoak edo eremu zabal batek eskatzen duenean iraunkorki diharduenetarako deituko da. Txostengintza-taldea, ordea, eginkizun jakin eta suntsikorra burutzeko izango da, kopuru urrikoa, eta, adibidez, txosten edo diktamen bat, nahiz erabaki-proposamenak prestatzeko.

46. Art.

Batzorde bakoitzak buru eta idazkari bat izango du. Burua, ahal delarik, euskaltzain osoa izango da. Bilkurak batzordeburuaren aginduz deituko ditu idazkariak, edo, honen ezinean, Euskaltzaindiko idazkariordeak. Batzorde idazkariak batzar-agiria egin beharko du. Dena dela, instituzioaren lana koordinatzeko, deien eta batzar-agirien kopia idazkariordeari eta eragile teknikariari bidali behar die, eta idazkariordeak Diruzaintzari bilerakideen berri eman-gio, honek haiei dagozkien ordainketak egin ditzan.

47. Art.

Batzordeek beren langintza garatzeko eskubidea dute. Emaitzen kontua osoko bilkurari emango diote, honek, hala legokiokeenean, azter eta berrets dezan.

48. Art.

Osoko bilkurak erabateko ordezkaritza eman diezaioke batzorde bati, hau da, gai jakin baten erabakitzeke ahalmena. Honelakoa da Argitalpen batzordearen eginkizuna.

49. Art.

Beste batzuetan, batzordeak, lana burutzeaz gain, lehen onarpena eman dezake. Gero osoko bilkurak berretsi beharko du. Horrelakoetan epea irekiko da, euskaltzain osoek eta dagozkien batzordekide edo ohargileek aldaketak eta zuzenketak aurkez ditzaten.

50. Art.

Batzordeei, arruntki edo bereziki, bigarren edo hirugarren mailako onarpena egotziko zaie (*Eusker*a XXII, 764-766. orr.) eginkizun hauetan:

50.1. Arruntki: txosten, irizpen-diktamen, izendegi eta horien antzekoetan, bai barneko bai Herri Aginte edo beste instituzioentzat prestatuetan.

50.2. Bereziki: onikusia edo oniritzia eskatzen duten lanetan, zeinetan Akademiaren ildo nagusi, arau edo gomendioak betetzen direla ziurtatu beharra baita. Dena dela, osoko bilkurak beti eska diezaioke batzordeari honen kontu zehatza.

51. Art.

Ikerburugoa osatzen dute sailburuak eta batzordeburuek. Aldian-aldean, bilduko dira, Euskaltzaindiaren eremu honetako eginkizun garrantzitsuak ko-

ordinatzeko. Bilera hauetara eragile teknikaria eta batzorde idazkariak ere deituak izango dira.

Aurrekoan aipaturiko bilkuretako bat **Iker** sailburu, idazkari eta Zuzendaritzarekin batera egingo da. Bilkura hauen xedea hurrengo urteko plangintza burutzea izango da eta maiatzean jarriko da.

Hala behar izanez gero, gaiaren arabera, sailburua eta eragile teknikaria bil daitezke, luza-ezinezko edozein arazorengatik.

52. Art.

Batzorde bakoitzak aurretiaz ohiko bilkuren egunak eta tokiak finkatuko ditu honen berri Idazkaritzara igorritik. Salbuespen eta ez ohitura gisa, ospakizun baten tokiaz edo/eta dataz baliaturik ohiko lekuetatik kanpo egin daitezke.

2.4. Egitasmoak

53. Art.

Euskaltzaindiak egitasmo bereziak bidera ditzake. Honetarako, Zuzendaritzak eta sailburuek egitasmo-lantalde bat proposatuko dute, osoko bilkurak onar dezan.

54. Art.

Egitasmo bakoitzak zuzendari akademiko bat izango du. Jarraipen batzordeño bat ere izenda daiteke, hiruzpalau lagunekoa, batzordeburua edo egitasmo zuzendaria barnean direlarik. Batzordeño hauetan eragile teknikaria ere egotea komeni da.

55. Art.

Egitasmo bakoitzak arduradun teknikoa izango du, lantaldearen idazkari gisa ariko dena, batzordeburu edo zuzendariaren gidaritzapean eta eragile teknikariarekin harreman eta elkarlan estuan.

56. Art.

Egitasmoetan lanean diharduten hitzarmendun edo bekadunak, arazo akademikoez landa, Barne Ibilbiderako erregelari eta Administrazio egiturapean egongo dira.

57. Art.

Egitasmoen laguntza oren kontuak arau eta prozedura orokorrez lekorra bereziki hartutako hitzarmenek ezarritakoak izango dira.

III. HAUTATZE, IZENDATZE ETA BOZKETAK*Euskaltzain berrien izendatzea*

58. Art.

58.1. Nahiz bizi guztirako izendatua izan euskaltzaina, bere burua euskaltzain osoari dagozkion eginkizunak betetzeko ezindurik ikusten badu, bere gogoz utz dezake euskaltzain oso izatea. Euskaltzaindiak hiru hilabeteko epea emango dio, dituen arrazoiak adierazteko, eta gero erabakiko du onartzen duen ala ez. Onetsia delarik, hurrengo bilkuran iragarriko du euskaltzainburuak hutsartea.

58.2. Euskaltzain oso izatea utzi ondoren euskaltzain ohorezko izendatuko da, euskaltzain ohien zerrendan.

58.3. Hutsartea betetzeko proposamenak ondoko bi batzarretan aurkez daitezke.

58.4. Euskaltzain osoa hautatzeko eginen den bozketa ezkutukoa izan bedi. Hautatze mahaia Zuzendaritzak osatuko du.

58.5. Lehen aldian euskaltzaingaietan nehorik ere nagusitasun osorik erdiesten ez badu, bigarren bozketa eginen da, eta, behar izanez gero, hirugarrena ere bai. Hirugarrenean nagusitasun osorik gertatzen ez bada, aulkia hutsik dagoela iragarriko da, berriz ere.

58.6. Idazkaritzak gutun ofizial baten bidez hautatu berriari hautapena jakinaraziko dio, bai eta kargua hartzeko epea eta egin beharrekoak ere. Hautatua izan denak hilabeteko epea du bere baiezkua emateko.

58.7. Zortzi hilabeteko epea eman daiteke, gehienez ere, karguaren hartzea ospatzeko. Lehen sei hilabeteak sarrera-hitzaldia idazteko izango dira. Sarrera-hitzaldi hori, hautatuak berak nahi duen gai batez izan daiteke, baina euskaltzain zaharraren (zeinen ondoko bezala sartzen den) aipu edo oroitzapena egiten duela, betiere. Azkeneko bi hilabeteak euskaltzainburuak, nahiz hark hautatu duen euskaltzain batek, erantzun idazkia idazteko izango dira. Sarrera-eguna euskaltzainburuak jarriko du.

58.8. Harrera-batzarra, ageriko bilkura berezia izango da. Hasteko, idazkariak bilkura hura zertarako den aditzera emango du, laburki. Berehala, bi euskaltzain -aurkezleatariko bat eta sarrera-hitzaldia azkena egina duen eus-

kaltzainkidea joango dira euskaltzain berriaren bila, batzar-tokian sarrarazi eta mahairaino lagunduko diote; eta han, buruzagiak adieraz diezaionean, bere hitzaldia irakurtzen hasiko da. Honen hurrengo erantzun behar duenak irakurriko du berea. Bukatu ondoren, denak zutik direlarik, euskaltzainburuak gaia euskaltzain aitortuko du, eta agiria eta ezautailua emanaz, eskua hertsiko dio; anaitasunezko erakuspen hau beste euskaltzain guztiek ere egingo diote.

58.9. Sarrera Erakundearen egoitzan izango da, edo, sartzen den euskaltzainaren proposamenez, haren jaioterrian edo bere eskualdearen nortasuna kontuan izanda, hiriburu edo leku esanguratsu batean.

Karguen horniketa

59. Art.

59.1. Euskaltzaindiko kargu guztiak lau urtetarako dira, baina berrautapena egin daiteke.

59.2. Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren karguak hornitzekoan soil gorde bitez Arautegiko arauak (Arautegia, 28. artikulutik 32.era artekoak).

59.3. Bozketako orduan, Euskaltzaindian izendatu zaharrena eta izendatu berriena, buru eta idazkari, hurrenez hurren, izango dira mahaia osatuko dutenak.

59.4. Euskaltzaindiaren gainerako barneko karguen horniketa batzarrean egingo da, Lehendakariak edo Zuzendaritzak proposamena eginez. Beste euskaltzain osoek ere bestelako proposamenak egin ditzakete. Batzarrak bere onartzeaz emanen dio balioa izendapenari.

Akademi bilkurak

60. Art.

60.1. Akademi bilkura arrunten ibilbidea eredu honen arabera izango da: mahaiburu erdian, euskaltzainburua egonen da; honen eskuinean, buruordea eta ezkerrean, idazkaria. Hauetariko baten ezinean, hurrengo ordenan diruzaina eseriko da mahaiburuan eta, era berean, **Iker** sailburua eta **Jagon** sailburua.

60.2. Mahaiburuak berak egiten ez badu, batzar moderatzaile bat ere egon daiteke. Moderatzaile honen egitekoak honako hauek dira: batzarraren haria ipinitako gaien arabera zuzen eramatea, hitza eskatu duenari dagokionean ematea, behar denean kentzea, elkarrizketa gidatzea, eztabaidak trenkatzea, solasaldiaren ondorioak laburki ematea.

60.3. Gaiak aurretiaz bidalitako ordena berean eramango dira, hasieran, mahaiburuak arrazoiren batengatik aldaketaren bat iragartzen ez badu, behintzat.

60.4. Nolanahi ere, lehen puntutzat azken bilkurako agiriari oharrik egin behar ote zaion galdetuko du. (Agiri hau ere aurretik ezagutuko dute batzarkideek, bidali zaienez gero). Inork zuzenketaren bat aurkezten baldin badu eta onartzen baldin bada, agiria ohar horren arabera jarri beharko da. Agiria zuzendu behar ez dela erabaki badeza batzarrak, ez da zuzenduko, baina urlia batzarkideak eskatutako zuzenketaren berri bertan emanen da. Batzarraren baimenduaz eta euskaltzainburuak eta idazkariak izenpeturik, azken batzarreko agiria berronetsia geldituko da.

60.5. Ondoren, batzar deian jarritako gaiak tratatzera pasatuko da. Puntu horiek erabaki proposamenak baldin badira, komeni da dagokion batzordeak aurreko hileko batzarrean banatzea, edo, hurrengoa baino hogeit egun lehena euskaltzain oso guztiei, eta dagozkien euskaltzain urgazle batzordekide edo ohargileei idazkaritzak bidaltzea.

60.6. Onetsi edo berretsi behar diren gaiak aztertu ahal izateko, banatutako proposamenei ohar edo zuzenketak idatziz eta geroago azalduko den prozeduraren arabera egingo dira.

60.7. Horrelako agiri edo erabakiak, ohiko nahiz ohiz kanpoko barrenko bilkuretan har daitezke.

60.8. Urte bakoitzaren azken aldean Zuzendaritzak heldu den urteko batzar egutegia presta beza.

IV. DIRUTZA ETA ONDAREA

4.1. Ondarea

61. Art.

Euskaltzaindiaren ondarea osatzen dute:

61.1. Instituzioaren jabetzapeko ondasun higikor eta higiezinek.

61.2. Azkue Bibliotekaren ondareek.

61.3. Eskubideek eta ondarezko izaeradun bestelako elementuek.

61.4. Bere ondarearen ustiakeetatik eskura dezakeen beste edozein diru-sarrerek.

61.5. Estatu zein bestelako erakunde publikoen Aurrekontuetan ezarritako ohiko diru-laguntzek.

61.6. Ohiz kanpo Estatuko Gobernuak zein bestelako erakunde publiko-ek eman liezazkioketenek.

61.7. Autonomia Erkidegoek ematen dizkiotenek.

61.8. Foru Diputazio, udal, instituzio, elkarte eta gizabanakoen laguntza eta emaitzek.

61.9. Argitalpenen etekinek.

61.10. Zerbitzuen emaitzek.

61.11. Instituzioak bil ditzakeen bestelako baliabide eta diru-sarrerek.

4.2. **Euskaltzaindiaren lana. Jabetza eta erabilera**

62. Art.

Euskaltzaindiaren Ondare edo Funts Intelektuala osatzen du Erakundearen esparruan egin edo eskuratu den lan akademiko orok, nahiz eta lan hori Euskaltzaindiaren Ondare Intelektuala zabaltzeko argitalpen, datutegi edo bestelako bideetan jaso ez.

63. Art.

Batzordeen (berezko) lan akademikoen ondorio den lan oro –lan hori zatikakoa zein osoa izan– Lan Kolektibotzat joko da. Euskaltzaindiak izango ditu jabetza intelektualari buruzko eskubide guztiak lan horren gain, hala eskubide moralak, nola lan hori ustiatzeko eskubideak (edizioa, argitalpena...); ustiatze hori Erakundearen helburuei hobekienik egokitzen zaien moduan nahiz denboran gauzatu behar da, bide zein teknologia egokienak erabilita.

64. Art.

Euskaltzaindiaren batzorde akademikoetan lan egiteagatik ez da ezer ordainduko; hori gorabehera, Euskaltzaindikoko gobernu organo eskudunak ordainketa teknikoak onets ditzake, proiektu akademiko berezietan parte hartu dutenentzat.

65. Art.

Salbuespenez, Euskaltzaindiaren ohiko lan esparrua gainditzeagatik, eta organo eskudunak hala erabakitzen duenean, organo horrek irizpen, txosten edo bestelako lanak egin diezazkieke batzorde bereko nahiz beste batzordeetako kideei, baita gainontzekoei ere. Agindu horiek betetzeagatik, kasuan-ka-

suan itundutakoa ordainduko da eta, hori jasotakoan, lan horren gaineko eskubideak Euskaltzaindiari lagatzeko agiria bete beharko da.

66. Art.

Euskaltzaindiari dagokio haren izenean argitaraturiko lanen gaineko eskubide oro, bai lan horiek Erakundearen zeregin kolektiboaren ondorio direnean, bai eta esparru horretatik kanpo eginiko ekarpenak direnean ere; azken horien kasuan, Euskaltzaindiak kasuan kasuko eskubideen lagapena lortu behar du.

67 Art.

Euskaltzaindiak argitaratzen duen lan orok parte-hartzaileen izen-abizenak jaso behar ditu, ikusteko moduko lekuan.

68. Art.

Interesatuak eskakizun formala eginez gero, organo akademiko eskudunak baimen dezake Euskaltzaindiari eginiko ekarpen partikularren edizioa edota argitalpena, baldin eta, ekarpen horiek Lan Kolektiboaren zati izan arren, modu independentean editatu eta argitaratu ahal badira; halako kasuetan, betiere, argitalpen hori Erakundearen argitalpenarekin bat etorriko dela bermatu behar da.

4.3. Diruzaina eta ekonomi eragilea

69. Art.

Euskaltzaindiaren organigramaren arabera diruzaina da ondare alorreko arduradun nagusia.

70. Art.

Araudiaren 12. artikulua arabera diru-sarrera eta diru-irteera guztien kontuen berri eta argibideak jasoko ditu.

71. Art.

Diruzaintzak, Euskaltzaindiari etor dakizkiokeen diru-sarrerak, barne antolakuntzarako berezko araubidearen ondorioz, osokoen bilkurak erabakitakoren arabera erabili ahal izango ditu:

71.1. Araudiaren 1. artikuluan eta Erregela hauen 1. artikuluan zehaztutako xedeak betetzeko.

71.2. Onetsitako argitalpen eta berrargitalpenak egiteko.

71.3. Literatura sariketak ordaintzeko.

71.4. Agindutako lanen lansariak emateko.

71.5. Akademi kargudunen esleipenatarako.

71.6. Bileretara deiturik joan diren euskaltzain eta batzordekideei, Aurrekontuan ezarritako ordainketa-neurria hornitzeko.

71.7. Langileen lansariak eta aseguruak ordaintzeko.

71.8. Funtzionamendu gastuei aurre egiteko.

71.9. Egoitza eta ordezkariak hornitzeko.

71.10. Azkue Bibliotekarako aurrekontua hornitzeko.

71.11. Zuzendaritzak, hala deritzon, xedeak betetzeko beharrezko ikusten dituen beka eman ahal izateko.

71.12. Euskaltzainek osokoen batzarrean erabakitzen dituzten beste ekin-tzetarako.

72. Art.

Diruzaintzak diru-sarrera eta diru-irteeren berri emango dio hilabetero Zuzendaritzari eta hiru hilebeterik behin, osoen bilkurari. Halaber, Euskaltzaindiak, jasotako diru-laguntzen erabileraren berri emango die instituzio, elkarte eta gizabanakoei.

73. Art.

Akademi kargudunek beren bizibidea instituzioaz kanpo dutenez, Diruzaintzaren ardura zuzena eramateko, diruzainaren gidaritzapean arituko den ekonomi eragile bat izenda dezake Euskaltzaindiak. Ekonomi eragile hau ez da euskaltzain osoa izango.

74. Art.

Organigramaren arabera ekonomi eragileari dagokio:

74.1. Aurrekontuak eta kontu-errendapenak prestatzea.

74.2. Ondasunen inbentarioa eta mantenua.

74.3. Kontabilitatearen kudeatzea.

74.4. Biltegiaren zuzendaritza.

74.5. Intendentzia eta erosketak.

74.6. Informatizazioa.

V. AZKUE BIBLIOTEKA

75. Art.

Azkue Biblioteka izena daraman Euskaltzaindiaren zerbitzuak honako ondare hau du:

75.1. Monografiak, aldizkako argitalpenak, eskuizkribuak, dokumentuak, mikrofilmak, grabaketak eta beste edozein euskarritan bildutako gaiak.

75.2. Instituzioaren artxibo historikoa.

75.3. Hau guztia gordetzeko eta erabiltzeko behar den hornidura.

76. Art.

Euskal kultura eta harekin zerikusia duten ingurukoak, bereziki euskarari eta euskal literaturari dagozkienak, dira Azkue Bibliotekak bilduko dituen gaiak. Hizkuntzalaritza orokorra eta hedadura txikiko hizkuntzen inguruko gaiak ere bil ditzake.

77. Art.

Aurreko artikuluan aipatzen diren gaien ikerkuntzari laguntza ematea da Azkue Bibliotekaren helburu behinena, eta ikertzaileendako zabalik dago, indarrean jarriko diren barne ibilbiderako baldintzekin.

78. Art.

Azkue Bibliotekak erosketaz, dohaintzaz edo trukez aberastuko du ondarea eta haren esku utzitako etorkinak zainduko ditu. Ongileen zerrenda agirian jarriko da bibliotekan.

79. Art.

Instituzioaren Aurrekontu orokorrean atal berezia izango du urtero Azkue Bibliotekak, ondare bibliografikoak eta horien antzekoak erosteko eta, hauek behar bezala erabiltzeko nahitaezko den tresneria eskuratzeko.

80. Art.

Ordenagailu nagusian sartuko den kontabilitate berezia eramango du Azkue Bibliotekak, dagozkion datuak bereiziz.

81. Art.

Biblioteka eta artxiboko ondarea osatuko duten sarrera guztiak katalogatuko dira, nazioarteko katalogazio informatikoen arauak jarraituz. Sartu direnen berri emango zaio osoen batzarrari.

82. Art.

Azkue Bibliotekako zuzendaritzak eta langileek ondarea zaintzen eta kontrolatzen ardura berezia izango dute. Aipatu hauek, euskaltzain osoak eta egoitzako arduradun nagusiak bakarrik sartu ahal izango dira biblioteka eta artxiboko barne getetara. Beste edozeinek zuzendariaren baimena beharko du sartzeko eta langileren batekin sartu beharko da.

83. Art.

Euskaltzainek, Herri Agintek eta Euskal Herriko Unibertsitateek eskubi-dea izango dute, zuzendariaren iritziz utz daitezkeen liburuak maileguz eramateko, eta hilabeteko epean itzuli beharko dituzte.

84. Art.

Azkue Bibliotekaren funtzionamendua bermatuko dutenak honako hauek izango dira:

84.1. Bibliotekaria, osoen bilkuran izendatua, euskaltzain oso izango dena.

84.2. Bibliotekako batzordea, bibliotekaria buru delarik, osoen batzarrean izendatua.

84.3. Zuzendaria, bibliotekako batzordearen idazkaria izango dena.

84.4. Langileria teknikoa.

84.5. Lan suntsikorrak aldizka burutzeko hitzartutako bekadunak.

85. Art.

Azkue Bibliotekako langileak honela izendatuko dira:

85.1. Zuzendaria Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak izendatuko du, batzordearen proposamenez.

85.2. Langileak eta bekadunak ere Zuzendaritzak izendatuko ditu zuzendariaren proposamenez eta batzordearen oniritziak.

85.3. Zuzendaria eta langile finkoak Euskaltzaindiaren langile-zerrendan sartuko dira.

86. Art.

Azkue Bibliotekako langileak, lanbide arazoetan, idazkariaren eta kudeatzailearen menpean izanen dira, eta lanaren antolamendu profesionalerako zuzendariaren menpean.

87. Art.

Azkue Bibliotekaren funtzionamendua, eta zuzendari eta langileen zereginak, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak onetsitako Barne Ibilbiderako arauetan bilduko dira, Bibliotekako batzordeak aurretik emandako iritzian oinarriturik.

VI. ARGITALPENAK

88. Art.

Arautegiaren 40. artikuluan Euskaltzaindiaren argitalpen bezala, *Euskera* agerkaria eta Institutuzioaren xedeei dagozkienak aipatzen dira. Argitalpenok, une honetan, sorta hauetan banatzen dira:

- 88.1. Arauak.
- 88.2. Iker bilduma.
- 88.3. Hiztegiak.
- 88.4. Gramatikak.
- 88.5. Hizkuntza atlasak.
- 88.6. Izendegiak.
- 88.7. Onomasticon Vasconiæ bilduma.
- 88.8. Literatura bildumak.
- 88.9. Euskararen lekukoak bilduma.
- 88.10. Jagon bilduma.
- 88.11. Katalogoak.
- 88.12. Argitalpen solteak.

89. Art.

Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori Argitalpen batzordearen bidez gauzatuko da eta honela osatuko da batzordea: Zuzendaritzakideak eta beste bi kide. Idazkari lanak, argitalpen eragileak egingo ditu.

90. Art.

Argitalpen batzordeak inprimatuko diren lan guztiak programatu eta onetsiko ditu, eta argitalpenaren prestakuntza, berezitasunak, nondik-norakoak, epeak eta bestelako xehetasunak jarraiki eta zainduko ditu.

Erabateko onarpena eman ahal izateko, lanak guztiz burutua eta taxutua izan beharko du eta, finantzabidearen aldetik, aurrekontuarekiko Diruzaintzaren baiezkotza irizpen idatzia ezinbestekoa izango da.

91. Art.

Elkarlaneko bildumetan eta gaiaren berezitasunak hala eskaturik, lanaren prestutasuna eta edukia jagoteko, euskaltzainburuak, idazkariak eta **Iker** eta **Jagon** sailburuek osatzen duten azpibatzerde akademikoak aztertuko du lana lehenik eta proposamena aurkeztuko Argitalpen batzordeari. Baita ere, beronen eskuordetzeaz beren beregi izendaturiko azpibatzerdez kanpoko irizpen emaelek. Hauek gutxienez bi izango dira, eta gaian adituak.

Azpibatzerde akademiko honen idazkari legez eragile teknikaria arituko da.

92. Art.

Euskaltzaindiaren izenarekin argitaratzen diren lan guztien jabetza osoa instituzioarena da.

Euskera agerkarian nahiz sorta batean egilea aipatuz argitaratzen diren lanetan Euskaltzaindiak argitaratze-jabetza zainduko du, egilearekin sinatutako argitaratze-hitzarmen baten bidez. Hitzarmen hau sinatzeak lana argitaratzea merezi duela adieraziko du, baina ez han esaten denarekin osoki bat datorrenik.

93. Art.

Inprimatze prozeduraren hurbileko jarraipena argitalpen eragileari dago-kio eta ez da beste inor sartuko horretan.

Ezinbestekoa gertatuko balitzaio, egile, prestatzaile, batzorde ordezkari, edo bildumaren arduradunaren laguntza eska dezake eragileak.

94. Art.

Euskaltzaindiaren biltegian gordeko dira salgai dauden argitalpen guztiak. Argitalpena biltegiratu ondoren, ondarea denez, Diruzaintzaren esku gelditzen da, horren kudeaketa. Eginkizun honetan salmenta arduradunaren laguntza izango du.

95. Art.

Idazkariordeak, argitalpen eragileak, eragile teknikariak, Diruzaintzako kide batek, Azkue Bibliotekako kide batek eta salmenta arduradunak osaturiko lantaldea arduratuko da aurkezpen, publizitate, zabalkunde, banaketa, trukezko zerbitzu eta bestelako xehetasunak antolatzeaz eta burutzeaz.

VII. ONARPEN MAILAK ETA PROZEDURAK

96. Art.

Euskaltzaindiak onartze maila hauek ditu: arauak, gomendioak, akademi batzorde mailakoak, oniritzi edo diktamenak.

Arau eta gomendio mailakoak

97. Art.

Ohiko prozedura honekin aztertu eta erabakiko dira:

97.1. Dagokion batzordeak, jarritako epearen barruan, proposamen txostena landuko du. Prestatu ondoren, egoitzara bidaliko du euskaltzainburuari batzar gaietan sar dezan eskatuz.

97.2. Horretarako batzordeak izendatzen duen batek lanaren aurkezpena egingo du. Zuzenketa epe zehatz bat iragarriko da, euskaltzain oso guztxi, batzordekideei eta beren beregi igorri eskatzen duen beste ohargile edonori eman ez edo igorri.

97.3. Zuzenketa edo oharra idatziz egin behar dira, egoitzara igorri eta, beste epe jakin bat jartzen ez denean, hurrengo hileko 20rako, luzeenik ere. Idatziz iristen direnak bakarrik hartuko dira kontuan.

97.4. Osoko zuzenketa bada, ordezeko testua aurkeztu beharko da.

97.5. Erabaki proposamen desberdinak daudenean, orri berezietan aurkeztu beharko ditu zuzentzaile edo ohargileak. Euskaltzaindiko idazkariordeari dagokio hileroko batzarrera doazen gaien zuzenketa-oharren testuaren kudeaketa, eta batzorde idazkariari, batzorde erabaki proposamenak direnean. Eragile teknikariak koordinatu eta lagunduko ditu lan honetan.

97.6. Proposamena hileroko bilkuran eztabaidatuko da eta erabakia hartuko. Eztabaida egun berean amaitzen ez bada, zatika ere har daitezke erabakiak hurrengo bilkuretan.

97.7. Arau eta gomendioak onartzen direnean *Euskera* agerkarian argitaratuko dira, lankideen izenak aipatuz.

Batzordeen araugintza edo gomendiegintzarako esku-emate osoaz

98. Art.

98.1. Garrantzi handirik gabeko araugai edo gomendio-gaietan, dagokion batzordeak, esku-emate osoa erabili, erabakitzea onar lezake euskaltzainen hileroko batzarrak.

98.2. Ezin izango da onartu zehaztu gabeko esku-ematerik.

98.3. Argitalpena aurreko artikuluan bezala izango da.

Batzorde mailakoak

99. Art.

99.1. Onarpena ez da maila osokoa izango, eta, lana Euskaltzaindiarena izanik ere, instituzioak ez ditu bere gain hartzen izen edo forma guztiak banan-banan eta zehazki. Batzordearen onarpen soila izango du, beraz.

99.2. Arau edo gomendioen mailarako ezarritakoaren antzeko prozedura beteko da.

99.3. Lan hauen jabetza Euskaltzaindiarena da, eta hark erabakiko du non eta nola argitara.

Irizpen edo diktamenak

100. Art.

100.1. Euskaltzaindiak, bere Arautegiaren 1.j. artikulua arabera, Herri Aginte, instituzio, elkarte edo gizabanakoentzat, bere irizpen edo diktamen emaile ginkizuna betetzeko ahala du.

100.2. Herri Aginte, instituzio, elkarte edo gizabanakoentzat prozedura honekin emango dira irizpen edo diktamenak:

100.2.1. Idazkaritzak, gaiaren arabera, dagokion batzordera pasatuko ditu.

99.2.2. Batzordeburuak bilkura gaietan sartuko du eta batzordeak bi eratarata eman dezake irizpena:

100.2.2.1. Batzordeak bere gain hartuz.

100.2.2.2. Batzordekide bati edo batzordeño bati aurrelana aginduz eta proposamenari bere on-ikusia emanaz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

101. Art.

101.1. Erregela hauei gehigarri gisa erantsiko zaie Administrazio eta Zerbitzuetako langileen Barne Ibilbidea.

101.2. Orobat, bai Euskaltzaindiaren zerbitzu, nahiz bestetarako beharrezko ikusten diren Barne Ibilbideak.

101.3. Era berean, Euskaltzaindiak onetsitako zenbait arau, hala nola, Biddarten 1989ko martxoaren 31n onetsiak protokoloari buruzkoak, Protokoloaren Barne Ibilbide gisa hartuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

102. Art.

Bakarra: Indargabeturik geratzen dira Erregela hauetan xedatutakoaren kontra doazen maila bereko edo beheragoko oraindainoko xedapen guztiak.